

### 3. Bota bertsoa

Bertsoak, horiek bai euskadunen tradizio zaharra!

1 Entzun arretaz bertsoak, eta unitatearen nondik norakoak ezagutuko dituzu. Ea gustuko dituzun!

1 Begira nago begira  
Paleolito urrutira:  
neska bat Santimamiñen  
hartz bat marrazten ari da.

2 Begira nago begira  
Neolitoko mendira  
hildakoak joan zaizkigu  
trikuharrien azpira.

3 Begira nago begira  
Antzinaro atarira  
galtzadan doaz idiak  
gurdiei tira ta tira.

4 Begira nago begira  
orain milurteko bira  
erromatarren gurdian  
idazketa etorri da.

5 Begira nago begira  
Erdi Aro gerlarira  
Nafarroako erresuman

6 Begira nago begira  
Aro Moderno berrira  
harrapatu berri duten

7 Begira nago begira  
hamasei mende erdira  
lehen euskal liburua

8 Begira nago begira,  
hau dugu hau ikusmira!  
Gelditu gabe baitabil

Beñat Gaztelumendi  
Doinua: *Hemen gezurra nagusi*

2 Ohartu zara? Lau bertsoaren azken lerroak desagertu egin dira! Aukeratu honako hauen artetik bakoitzari dagokiona, eta idatzi bere lekuan.

a Etxepareren argira.

b balea dator herrira.

c mundua jira ta bira.

d euskaldunak bizi dira.

e amona ondo zaindu ezazu.